

Erraldoi, buruhandi, zaldi eta txotak

Konpartsako pertsonaiak kalean gora eta behera ibiliko dira jaietan



Jaietan berriro izango ditugu gure artean Gasteizko Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsa osatzen duten pertsonaiak, festa giroa eta alaitasuna bazter guztietara zabalduz. Beraz, erraldoi bikote ikusgarri eta koloretsuen dantzez gozatzeaz gain buruhandi beldurgarrien aurretik korrika egiteko parada izango dute hiri erdialdera hurbiltzen diren txikitxoek. Hori aski ez dela, beti goseak dagoen Gargantuaren errailetan barrena sartu ahal izango dira neskato mutiko ausartenak.

Gasteizko Buruhandi eta Erraldioen Konpartsa 1917an atera zen kalera lehen aldiz Andra Mari Zuriaren jaietan. Dena den, urtebete lehenago Iruñeko konpartsa ekarri zuten jaietan giroa sortzeko eta hura oso gogoko izan zuten gasteiztarrek. Hori dela eta, bertako konpartsa sortzeari ekin zioten gasteiztarrek. Hala, urtebete beranduago, bi erraldoi bikote eta lau buruhandi inguru zituen Gasteizko konpartsa irten zen aurreneko aldiz kalera.

1929ean pertsonaia multzo jaioberri horri *Los Regueveros* izeneko erraldoi bikote berria gehitu zitzaion eta 1940 aldera, ordea, beste lau buruhandi.

Hiru urte geroago, kartetako lau erregeak sartu ziren pertsonaia sorta horretan. Lau errege horiek hamazortzi bat urtez parte hartu zuten konpartsan 1962an desagertu ziren arte. Izan ere, erregeok pisu handia zuten eta zaila zen horrenbeste pisu soinean eramane nahi zuen norbait aurkitzea. Hala ere, 1991. urtean berreskuratu egin ziren kartetako lau erregeen figurak; hau da, errege pisutsu horien ordezkari izan zuten erraldoiak egin ziren konpartsarako.



Konpartsako buruhandi eta txotak.

Material berriak

Konpartsako arduradunen esanetan, erraldoi eta buruhandien materialak berriak eta modernizatu egin dira. «Lehen erraldioen egiturak zumitzez eginak zeuden eta erabiltzeko nahiko astunak ziren. Orain, berriz, zurezkoak direnez gero askoz errazago maneiatzen dira, 55 kilotik gorako pisua duten arren. Hala ere, zailena erraldoia dantzaraztea izaten da». Horrez gain, buruhandien materiala ere berriak egin da. «Lehen buruhandiak harri-kartoizkoak ziren, oraingoak zorionez beira-zuntzezkoak, baita erraldioen gorputz atalak (eskuak...) ere, erabiltzeko askoz arinago eta erosoagoak. Dena den, buruhandiak erabiltzeko orduan ikusmena dugu oztoporik han-

diena. Izan ere, buruhandiaren ahoa den zulotxotik ezin dugu behealdean duguna ikusi. Beraz, nahiko arriskutsua izaten da eta askotan buruhandiaren burua altxatu behar izaten dugu dena ongi ikusteko. Esaterako, 25 kilo dituen *Escachapobres* bezalako buruhandia eramatea eta altxatzea ez da lan makala. Beraz, horrelako buruhandiak ez ditugu jotzeko asko erabiltzen».

Gargantua

Buruhandi, erraldoi eta gaintzeko pertsonaiekin batera, 1923 aldera konpartsara heldu zen Gargantua ere irten-go da kalera, ume ilarak oso osorik irenstera. «Pertsonaia tripontzi horrekin osatuta dugu gure konpartsa».

egitaraua

Abuztuak 4, ostirala

19:00 Andra Mari Zuriaren irudiaren aurrean dantzalditxoak eskainiko dio konpartsak Udaltzari.

Abuztuak 5, larunbata

12:00 Andra Mari Zuriaren plaza-tik Alde Zaharrerako kalejira. Zapataria kalea, Arriagakokalea, Ahate-iturri plaza, Jesusen Zerbitzarien Fundatzaileen kalea, Diputazio kalea eta Espainia plaza zeharkatuko dituzte.

Abuztuak 6, igandea

12:00 Espainia plazan hasi eta erdiko kaleetan barrena kalejira.

Abuztuak 7, astelehena

12:00 Espainia plazan hasi eta erdiko kaleetan barrena kalejira.

Abuztuak 8, asteartea

12:00 Aiztogile kalean, San Prudentzio Zaharren egoitzan, Frantzia kalean eta Errege atean barrena kalejira.

Abuztuak 9, asteazkena

12:00 Andra Mari Zuriaren plaza-tik Posta kalerainoko kalejira.

•Gargantua 12:00etatik 14:00etara eta 18:00tik 20:00ra izango da egunero Peñaflorida kondearen plazan.

Konpartsa osorik

Konpartsa guztiz osatu asmoz, iaz zortzi pertsonaia berri aurkeztu ziren; lau txota eta lau zaldi. Txotak, Fournier etxeko kartetako txotek dituzten jantzi berdinak daramatzaten pertsonak ditugu. Txota bakoitzak eskuartearen duena eskainiko die herritarrei, hots, urrea, kopa, ezpata edo bastoiak. Zaldiak, berriz, Marco Ibañez de Matauco eskultoreak eginak ditugu. Zaldi horiek beira zuntzezkoak dira eta 2,5 metroko luzera dute. Gainera zaldi bakoitza saltoa emateko jarreraren dago, pertsona bat barrura sartu eta ibili ahal izateko egokituta.

Guztira, hamar erraldoi daude konpartsan, aipatu kartetako lau erregeak eta Arabako lautadako pertsonaien ohiturak eta bizimodua irudikatzen dituzten hiru baserritar bikote. Esaterako, bikoteetako batek *Regueveros* du izena eta ostegunero produktuak saltzera azokara joaten ziren pertsonaia ezagunen isla ditugu. Beste bi bikoteak Aramaio eta lautadako baserritarren irudiak dira. Erraldoiez aparte, zortzi buruhandi daude konpartsan. Honako hauek: Zeledon, Margolaria, Catxan, Escachapobres, Ojibiriki, Calvasca, Negartia eta Atso zaharra. Horien artean arriskutsuenak azken laurak dira, gogor egurtzen dute eta.



Angel Ferreiro
Labana-denda
Azkar eta zorrotz

Agirre Lehendakaria, z/g
945 23 37 05
GASTEIZ



AMILAMIA

Zure gustoko arropa
eta askoz gehiago

Pintoreria, 17 - GASTEIZ - 945 27 40 09 tel.



LARRUKI
LARRU ARTISAUTZA
ETA INPORTAZIOKO GAIK

Kutxilleria, 26 Tel.: 945 28 38 86 GASTEIZ



Tabacos MONTTOYA

Cuchilleria, 25 • GASTEIZ
Tel.: 945 28 37 98 • 630 38 51 99

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tel.: 945 14 64 10 - GASTEIZ